



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

**2021EKO URRIAREN 7AN BASABURUKO UDALAK**  
**EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2021eko urriaren 7an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Xabier Azpiroz, Ricardo Arangoa, M<sup>a</sup> Mar Ansorena eta Julen Beunza.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai

Bertaratu da baita ere Asensio Indakoetxea Berueteko kontzejuko alkatea.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

**GAIZERRENDA**

**1.- Aurreko aktaren onespena.**

Uztailaren 29an egindako batzarreko akta emaillez helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

**2.- Alkate ebazpenak**

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

- 2021/94 alkate ebazpena onartuz Xebe Eugui Iribarrenek, Itziar Alberro Goñiren izenean egindako eskaera, 2021 urteko zirkulazio zergaren dagokion zatia itzultzeko NA7730AW matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 62,65 eurokoa izanen delarik
- 2021/95 alkate ebazpena obra baimena emanaz Jose Antonio Sanchez Lorenteri Erbitiko 7. Poligonoko 2. Lursailean dagoen etxean leihoa haunditu eta zurgindegia aldatzeko, aurrekontua 1.724 eurokoa.
- 2021/96 alkate ebazpena Baimena emanaz Argimalutak Soc. Mcoop.-ri Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko, abuztuaren 4, 11, 18, 25 eta irailaren 8, 15, 22 eta 29an goizeko 10:00etatik 11:30etara helduentzako yoga saioak emateko.
- 2021/97 alkate ebazpena onartuz Ttikiena haur eskola sortzeko hitzarmenaren aldaketa, non 2. Xedea aldatzen den, aipatutako eskolarako bigarren unitatea onartuz
- 2021/98 alkate ebazpena onartuz Edurne Koch Elizegik egindako eskaera irailaren 5ean, goizeko 9etatik 12etara herrikoetxeko gela haundia erabiltzeko bizilagunen bilera bat egiteko.
- 2021/99 alkate ebazpena onartuz Ana Irigoyen Torresek egindako eskaera 2021eko abuztuaren 21etik abenduaren 31ra, larunbatetan, goizeko 11:30etatik 13:30etara Apeztegi berriko bigarren solairuko gela erabiltzeko "lantegi sortzaileak" egiteko.
- 2021/100 alkate ebazpena onartuz Rotugrafik empresak aurkeztutako aurrekontuak, 121 eta 142 zenbakidunak, barreiatuetan plakak, kartelak eta posteak jartzeko. 121. Aurrekontuaren kasuan 324.80 eurokoa BEZ kanpo izanen litzeke eta 142. Aurrekontuaren kasuan 1.849,35 eurokoa, 800\*650 azalera duten 5 kartel haundi eskatuko lirakeelako, 300\*650 tamainako 21, eta 27 poste.
- 2021/101 alkate ebazpena obra baimena emanaz I- de Redes Electricas Inteligentes S.A .- ri Berueteko 11. Poligonoko 28. lursailera doan argi indar linea lurperatzeko, obrare aurrekontua 5.831,68 euro.
- 2021/102 alkate ebazpena onartuz Basaburuko Bilgune Feminista elkarteak egindako eskaera irailaren 11 eta 16an eta urriaren 2 eta 16an goizeko 9:30etatik 14etara Aizarotzko kultur etxeko gela haundia erabiltzeko sexualitate tailerra burutzeko.
- 2021/103 alkate ebazpena onartuz Elena Gaskue Jaunarena, egindako lanaldi murrizketa eskaera, eta 2021eko irailaren 1etik aurrera lanaldia %87.50 izatea, 2011/27 Foru Dekretuaren 5. Artikuluaren arabera.
- 2021/104 alkate ebazpena onartuz Javier Madoz Zubillagak egindako eskaera, Itsasoko 4. Poligonoko 461. Lursailera doan ur kontagailuan izan den ur isurdurak sortu dituen 400 metro kubikoak anulatzeko.
- 2021/105 alkate ebazpena Onartzea tasen salbespena 2021eko urtarriletik ekainera, kontutan hartuta kobraketa jakinarazpena ez zela zuzen egin, ikasturte hasieran ez zegoela ordenantza indarrean eta hortaz erabiltzaileekin kuotak finkatzeko informazio hori ez zegoela eta ere koronabirusak sortu duen egoera bereziarengatik.  
Baina ez onartzea tasen salbespena gelak erabiltzeagatik uztaila eta abuzturako, orduan jada ordenantza indarrean zegoelako eta ezta ere 2021-2022 ikasturtera begira.
- 2021/106 alkate ebazpena onartuz Sare Nafarroa plataformak aurkeztutako mozioa presoen hurrentze espetze politikaren inguruan eta Basaburuko bizilagunak gonbidatzea elkarte honek, irailaren 29tik urriaren 2ra egingo den "Ibilian ibilian etxerako bidean " ekimenera .
- 2021/107 alkate ebazpena onartuz Amaia Legarra Beunzak egindako eskaera, eta ordaindutako baimena ematea, bere seme alabak diren Haizea eta Ekhi Fernandez

Legarra etxean konfinatuak dauden epean bere zaintza egiteko, 2020/59. Foru Aginduaren 6. Artikulua jarraituz.

- 2021/108 alkate ebazpena onartuz Oihanzabal Guraso Elkarteak egindako eskaera, irailaren 21ean, arratsaldeko 17etatik 19etara bilera bat egiteko Apeztegi berriko erakineko bigarren solairuko gela handia erabiltzea.

- 2021/109 alkate ebazpena baimena ematea Irati Munduate Apariciori, Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko, 2021eko urriaren 5etik 2022ko ekainaren 22ra, ballet eta pre-dantza ikastaroak egiteko ondoren zehazten den egun eta ordutegian:

-Asteartea Ballet II 18:30etatik- 19:30etara

- Asteazkena Pre-danza 17:30etatik-18:15etara

-Osteguna Ballet I 17:30etatik- -18:30etara eta Ballet II 18:30 etatik- -19:30etara

- 2021/110 alkate ebazpena baimena emanaz Argimalutak Soc Mcoop elkarteari, Aizarotzko kultur etxeko areto handia erabiltzeko, 2021eko urriaren 7tik 2022ko ekainaren bukaera arte, ostegunetan 18:30etatik 20:30etara yoga ikastaroa emateko.

- 2021/111 alkate ebazpena baimena ematea Ernaizu Elkarteari 2022ko Urtarrilaren 10ean Apeztegi berriko denda eta taberna ixteko, inbentario eta garbiketa egiteko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

### **3.- 2021/106 alkate ebazpena berrestea.**

Alkateak azaltzen du, Sare Nafarroa plataformak aurkeztu zuela mozio bat presoen hurrentze espetxe politikaren inguruan, mozioa hau, 2021/106 alkate ebazpen bidez onartu zen bertan ere gonbidatzen zituztelako entitateak eta biztanleak irailaren 29tik urriaren 2ra egingo zuten Ibilian Ibilian etxerako bidean ekimenera.

Orain aipatutako ebazpena batzak berrestea proposatzen du alkateak. Irakurtzen du aipatutako mozioa eta bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**-2021/106 alkate ebazpena berrestea non onartu zen Sare Nafarroa plataformak aurkeztutako mozioa presoen hurrentze espetxe politikaren inguruan eta Basaburuko bizilagunak gonbidatzen ziren elkarte honek, irailaren 29tik urriaren 2ra egingo den "Ibilian ibilian etxerako bidean" ekimenera .**

### **4.- 2021 aurrekontua. Hasierako onespena.**

Alkateak azaltzen du aurrekontuaren proposamena jada ogasun batzordean aztertu dela eta aldaketa batzuk txertatuz hasierako onespena batzarrari luzatu diotela batzordeak.

Bildutakoek proposamen hau ontzat emanaz, aho batez 1990/6 Nafarroako Toki Administrazioako Foru Legearen 271. Artikuluaren arabera ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**-Hasiera batez onartzea 2021ko aurrekontua proposamena eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu 15 egun baliodun jende aurrean egon dadin behin betiko onespena eman baino lehen.**

#### **5.- Udal eraikinetako gelak erabiltzeko ordenantzaren aldaketa.**

Alkateak azaltzen du gelen erabilerarekin lotuta ikasturte osorako eskaerak direnean epe bat ematea proposatu dutela udal administrarietara, bestela eskaerak jaso ebatzen direla eta hortaz azkeneko eskatzaileak gelak erabiltzeko aukerak galtzen ditu. Epe hori finkatzen bada epe horretan biltzen dira eskaera guztiak eta ondoren ebatzen dira uztartuz guztien ordutegiak posible bada beti ere. Epe hau betetzea aipatu den bezala bakarrik ikasturte osoko ihardueretarako izanen litzateke. Modu honetan tramitazioa egin ahal izateko ordenantzaren aldaketa bat onartu behar da batzarrean, txertatuz aipatutako proposamena, ordenantzaren testuan. Proposamen hau, txertatzekotan 4. Artikuluan txertatu beharko lirateke, bildutakoek 20 egun inguruko epea nahikoa izango dela erabakitzen dute eta kontutan hartuta ikastaroak urrian hasten direla, abuztuaren 16tik irailaren 7ra epea finkatzea adosten dute.

Txertatu beharreko testua honakoa hau izanen da, “Ikasturte osoko ihardueretarako, hots, hasiera urteko iraila-urria eta bukaera maiatza-abuztua, eskatzaileek eskaera eta bestelako dokumentazioa iharduera hori burutuko duten urteko abuztuaren 16tik irailaren 7ra aurkeztuko dute. Eskaera guztiak bildu ondoren bakoitzaren ebazpena egingo da eta eskatzaileari jakinaraziko zaio. Ebazpenak onartzerako orduan kontutan hartuko dira ordenantzaren 9. Artikuluan zehazten diren irizpidean”

**Hortaz bildutakoek 1990/6 toki administrazioko Foru Legearen 325. Artikuluaren arabera Basaburuko udal eraikinetako gelak erabiltzeko ordenantzaren aldaketa hasiera batez onartzen dute eta akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.**

Gai ordenean zerrendatu gabeko gai bat dagoela adierazten du alkateak batzarrak aztertzeko eta premiazkoa izanik bildutakoek gai ordenean sartzea adosten dute aho batez.

#### **Laboral kutxan kontua irekitzeko izendatuak.**

Alkateak gogoratzen die bildutakoei, gai hau ogasun batzordean aztertu eta erabaki zela. Hots Euskadiko Laboral Kutxan kontu korrontea irekitzea, 200.000 euroekin.

Kontuan 3 pertsona egon behar dira izendatuak eta ordainketak hiru pertsonen sinadura mankomunatuarekin egingo dira. Hortaz bildutakoek Basaburuko udalak Laboral kutxan 200.000 euroko soberakinarekin irekiko duen kontuan izendatuak hauek izatea adosten dute:

- **Esther Lacasta Perez Ilzarbe 29144188Z NAN zenbakiduna eta Basaburuko udaleko alkatea, Elena Gaskue Jaunarena 72680466Y NAN zenbakiduna eta Basaburuko udaleko administraria eta Lucia Beloqui Iriarte 44634162V NAN zenbakiduna eta Basaburuko udaleko Idazkaria.**
- **Erabaki hau Laboral Kutxari jakinaraziko zaio kontua irekitzeko tramitazioarekin jarraitzeko.**

## **6.-Mozioak.**

Alkateak aipatzen du EH Bildutik bidaliko argi indarraren prezioen igoerarekin lotuta mozioa helarazi dutela. Ondoren irakurri eta transkribatzen dena:

### **DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa!**

*Argindarraren prezioa maximo historikoetan; fakturak igotzen; enpresa elektrikoak aberasten, herritarrak pobretzen eta Espainiako Gobernua hori baimentzen. Hori da, hain zuzen ere, herritarren aurka egiten ari den iruzur handiaren laburpena. Iruzur horrek ondorio larriak izan ditu familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan.*

*Egoera hori, besteak beste, enpresa publikoen pribatizazioaren, salmentaren eta desegitearen ondorioz etorri da; izan ere, horrek sistema desarautzea eta "merkatuaren" esku uztea ekarri du. Administrazio Kontseiluetatik kontrolatzen eta manipulatzuten duten merkaturak, helburu bakar bat partekatuz: energia bezalako funtsezko ondasun baten kontura aberastea, non enpresa handiek urtean mila milioi euroko irabaziak metatzen dituzten, kontsumitzaileei dirua lapurtzen eta ekoizleei lurraldeak ebazten dizkieten bitartean, ondorio sozial eta klimatiko oso larriak eraginez.*

*Egoera horri aurre egiteko neurri koiunturalak eta adabakiak besterik ez dira hartu. Eta enpresa handien onurei eragingo dien neurri bakarra hartu duenean, enpresa xantaia egin eta mehatxura jo dute. Eliteen eta gehiengo sozial eta herrikoien arteko pultsu baten aurrean gaude, finean.*

*Egoera hau garesti ateratzen zaigu. Bada garaia burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeko eta argindarra errespetatzeko, oinarrizko ondasun eta eskubide gisa.*

*Hori dela eta, Basaburuko Udalak honako hau adierazten du:*

*1. Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larria salatzen du.*

*2. Estatu espainiarrean ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak behar ditugu, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeke eta argindarra oinarrizko ondasun eta eskubide gisa errespetatuko dutenak.*

*3. Nafarroako Gobernua interpelatzeko dugu, lankidetzaren publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituen neurri zehatzak har ditzala presazko izaerarekin.*

*4. Basaburuko Udalak egoera hori salatzeko deitzen diren deialdiekin bat egiten du, eta herritarrak parte hartzera animatzen ditu.*

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurri eta transkribatutako mozioa.

#### **7- Batzordeen informazioa.**

##### **Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.**

Elikagaien mahaiaren bilera izan zen, bertan Mimukai proiekturako obradorea egiteko ze baldintza behar diren aztertzen ziren. Bestetik aipatu zen NGan eskolako jantokiak hornitzeko ez duela kontutan hartzen produktu ekologikoa ez tokikoak erabiltzea, bakarrik arlo ekonomikoa baloratzen dela. Bukatzeko aipatzen du Larraungo udalak proiektu bat martxan jarri nahi duela sustatzaile berriak erakartzeko, lurra erositik ekoiztu ditzaten, Intia entitatearen aholkularitzapean.

##### **Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.**

Kontzejuen bilera aurkeztu ziren kontzejuetako kontuak zirkulazio zergaren ekarpen eta administrari gastuekin lotutakoak eta proposatu zen elurkentearen plangintza udaletik eramatea. Lakitari aurrekontua eskatu zaio Basaburuko herrietako errepide guztiak garbitzeko. Aurrekontua eskatzeko adierazi zaio enpresari eskola garraioa hasten denerako garbitua egon behar dela errepidea eta hau bueltatzen denerako ere eguardian, ondoren elurra botatzen jarraitzen badu, arratsaldeko 19.20etan berriro garbituko dira errepideak.

Aurrekontua bidaltzen denean berriro bilera egingo da alkateekin.

#### **8- Informazio orokorra.**

- Agenda 21eko dirulaguntzaren onespena, Apeztegi berriko aterpea egiteko 4909 eurokoa.

- Adinduen kirol ihardueretarako programarako dirulaguntzaren onespena 2020-2021 ikasturterako 2. Zatiaren ordainketa onartzen duen 2021/110E ebazpena 298,40 eurokoa.
- Arte eta Kultura 2021 programarako ere 800 euroko dirulaguntza jaso da aurrekontua 1600 eurokoa izaki.
- 2021/360 ebazpen bidez izendatzen dira Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusiko eta Nafarroako Foru Komunitateko tokiko eskolatze batzordeetako kideak, horien artean Esther Lacasta NUF-eko ordezkari bezala.
- Euskarabideko diru laguntzaren onespena, 2021/27E ebazpen bidez onartua 3382 eurokoa. Justifikatzen da bertan UEMAren kuota eta egin diren beste iharduera batzuk, antzerkia eta abar...
- Ultzamako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko berdintasun batzordeko bilera irailaren 16an izan zen, bertan adostu zen berdintasunaren inguruko formakuntzak egitea hautetsientzat eta Basaburuan urriaren 21 eta 28an izango dira 17etatik 19etara.
- Basaburuko ehiza barrutiko aldaketa onartua dagoela adierazten du ere alkateak Saldiasako udalerrira Basaburuko ehiza barrutiko parte izateko, urriaren 7ako data duen 2021/997E Foru Dekretu bidez.
- Despopulazioaren dirulaguntzetara aurkeztutako eskaera ez dute onartu, eskaera honetan sartu zen Apeztegi berriko aterpea egin eta istea.

## **9. Erregu-galderak**

Berueteko alkateak adierazten du elurkentearen gaiarekin lotuta, bere kontzejuaren kasuan udalak garbitzen badu errepidea herriraino kanpo geldituko zirela baserriak eta sagardotegiak, hori orain arte herriak ere garbitzen zuen eta hori kontutan hartzea eskatzen du elurkentezko plana finkatzerako orduan. Santos Etxegiak erantzuten du hurrengo alkateen bileran hitzegino dela berriro gai horretaz, behin Lakitak lanen aurrekontua bidaltzen duenean.

Bestetik ere Berueteko alkateak adierazten du Berueten Iberdrolak sustatu duen argi indarraren linea lurperatzeko proiektuarekin ere kontzejuak udalari helarazi nahi diola lurperatze horrek ondorioak ekarri ahalko lituzkeela bertatik pasatzen direlako ur hornidura sareak eta hori kontutan hartu beharko dela obra baimena ematerakoan.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:30 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.